




KRISTAU-PRESTAKUNTZARAKO MATERIALAK 2024

GAZTEEN KATEKESIA

MATERIAL OSAGARRIA

Klima-aldaketak gehien kaltetzen dituen eremuak



Source: Verisk Maplecroft

© Verisk Maplecroft 2022

Munduko biztanleriaren erdia klima-aldaketarekiko «kalteberatasun handiko eremuetan» bizi da, dela beren kokapen geografikoagatik, dela beren egoera sozioekonomiko kaskarragatik. Horregatik, muturreko fenomeno meteorologikoek besteei baino kalte handiagoak eragiten dizkiete.



Fotos: PIXABAY

EREMURIK KALTEBERENAK:

- Leku idorretan kokatutako herrialdeak, hala nola **Sahara/Sahel, Ekialde Ertaina eta Asia Zentrala** (Niger, Sudan, Etiopia, Somalia, Yemen, Iran, eta Txinaren mendebaldea eta iparraldea).
- **Saharaz hegoaldeko Afrika**, lehorre eta uholdeengatik (Kenya, Uganda, Tanzania, Nigeria, Mozambique eta Hegoafrika).
- **Asiaren hegoaldea eta hego-ekialdea**, Himalaiako izotz-geruzak urtzen aritzeagatik, lehorrengatik, uholdeengatik eta ekaitzengatik (India, Pakistan, Bangladesh, Txinaren hego-ekialdea eta ekialdea, Myanmar, Vietnam, Filipinak eta Indonesia).
- **Latinoamerika** eta Ameriketako Estatu Batuetako eremu batzuk, ur-eskasiagatik eta uholdeengatik.
- Itsasoaren maila igotzearen eta zikloien ondorioz arriskuan dauden **uhartedi txikiak** (Komoreak, Kiribati, Tuvalu, Maldibak eta Haiti).
- **Artikoa**, izotz-geruzak urtzen ari direlako.

